Erref. kodea: LAF-107-820

Izenburua: Gutuneria: DIRAZAR, Janbattit.
[Ikus gainera: 102-204]

Bordaletik, abendoaren 19-an,

Jaun apeza eta buruzagia

Goiz huntan, ostirale guziz bezala, eskuratu dut "Herria". Eskerrak deraizkut nik igorri lanaren parte on bat agertarazi baituzu galdatu bezala. Pentsu dut segida molde berean ezarrarazi(ko) duzula ondoko egunetan.

Nehor ez baita Jainko gutartean eta baitira ideia guzietako jendeak, badaitake ene solasak ez dituzten denek berdin untsa hartuko eta nor edo nor apailatzen ahal da "ihardespen" zerbaiten izkiriatzerat. Nihundik ahal baduzu, hori gertatzen balitz, ez zinukeia gibelatzen ahal gisa hortako artikuluaren agertaraztea enea burutik buru (igoria dautzutana eta igoriko dautzutan undarra) agertu arte? Hartaraz gero, zerbait "ihardespen" ukaiten bazinu ene artikuluari doana, hitz bat egiten ahal zinukeia eni buruz lehen bai lehen ?

Bertzalde asko hutś ttipi izan dira lehen zathian, "Pilotzaleak" "Pilotatzaleak"-en orde, "Pilota-jokarien" "pilota-jokoaren" orde eta holako (azken lerroan, hitz bat eskas, "buruak") Pentsatzen dut irakurleek beere baitarik chuchendu dituztela bainan heldu den astean hitz bat egin bazinezazu hataz eta ezar ene artikuluaren hastean, hobe!

Ederki egiten duzu ene artikuluaren pozikatzea pozi bakotchari titulu bat emanez. Biba zu!

Eta bururatzeko, bertze gauza bat: ez dakit nor den "Zalaiberri" bainan Liburu Sainduez egiten dituen artikuluak zinez arradoak dira, egileak hartze ditu komplimendu bizienak.

Bertzaldi arte. Agur lerroak lehiatzez lehiatzetik

J. B. Dirassar

B. Postale 92

BORDEAUX